

Plan eta Funtsetara egindako ekarpenen zozketa 2019: lege oinarriak

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. merkataritza sozietateak (aurrerantzean, “**BBVA**”) antolatzen du “PLAN ETA FUNTSETARA EGINDAKO EKARPENEN ZOZKETA 2019” izeneko promozio hau (aurrerantzean, “**promozioa**”), eta lege oinarri hauen arabera garatu beharko da (aurrerantzean, “**lege oinarriak**”). BBVAren IFK A48265169 da, eta Bilbon du helbide soziala (San Nikolas plaza, 4).

LEHENA.- Xedea

Promozio honen helburua BBVAren bezeroei pizgarria ematea da, gutxienez ehun (100) euroko aparteko ekarpena edo harpidetza egin dezaten (aurrerantzean, “**aparteko ekarpena**”), www.bbva.es nahiz m.bbva.es atarieren, BBVA aplikazioaren nahiz BBVAren edozein kutxazain automatikoren bitartez, jarraian adierazitako baldintzetan, produktu hauetako edozeinetara:

- (i) BBVA Pensiones, S.A E.G.F.P.k kudeatutako pentsio plan indibidual batera (aurrerantzean “pentsio plana”)
- (ii) BBVAk administratutako NORPENSIÓN BGAE INDIVIDUALeko gizarte aurreikuspeneko plan batera (aurrerantzean, “aurreikuspen plana”)
- (iii) BBVA Asset Management, S.A. S.G.I.I.C.k kudeatutako inbertsio funts batera (aurrerantzean “inbertsio funtsa”)

Aurrez adierazitako ekarpena egin duten banakoek (aurrerantzean, “**parte hartzaileak**”) doan parte hartu ahal izango dute lege oinarri hauetako seigarren klausulan adierazitako egunetan egingo diren zozketetan. Haietan, 1.000 €-ko (mila euro) saria emango zaio irabazleari, lege oinarrietan adierazitako baldintzetan. Parte hartzaileari BBVA duen kontu korranteetako edozeinetan ordainduko zaio saria.

BIGARRENA.- Indarraldia

Promozioan parte hartzeko epea 2019/10/01ean hasiko da, 15:00etan (Espainiako penintsulako ordua), eta 2019/12/31n amaituko da, 23:59an (Espainiako penintsulako ordua), biak barne (aurrerantzean, “Indarraldia”).

HIRUGARRENA.- Lurralde eremua

Promozioa Espainiako lurralde osoan izango da baliozkoa.

LAUGARRENA.- Parte hartzeko baldintzak

- Promozioa hasiko den datan 18 urtetik gora dituzten pertsona fisikoentzako promozio bat da; gainera, 2018ko abenduaren 31 baino lehen 64 urteak bete gabe eduki eta Espainian bizi behar dira.
- Sustapenean parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da BBVAren bezero izatea, kanal anitzeko kontratua sinatuta izatea eta aldez aurretik pentsio plana, gizarte aurreikuspeneko plana edo inbertsio funtsa edukitzea BBVArekin kontratatuta.
- Promozioan parte hartzeko eta, ondorioz, zozketan aukeratua izan eta saria lortu ahal izateko, ezinbestean eta berariaz onartu behar dira lege oinarri hauek, lehen klausulan adierazitako bitartekoen bidez.
- Parte hartzailearen batek ez baditu betetzen lege oinarri hauek, automatikoki ezeztatuko da haren parte hartzea, eta irabazle suertatu bada, saria itzuli beharko du.

BOSGARRENA.- Parte hartzeko mekanika

Zozketan parte hartzeko eta zazpigarren klausulan deskribatutako saria lortu ahal izateko, parte hartzaileak lege oinarri hauek onartu beharko ditu, eta gutxienez ehun (100) euroko aparteko ekarpena egin beharko du pentsio plan batera, gizarte aurreikuspeneko plan batera edo inbertsio funts batera, "egin aparteko ekarpena nire planera" edo "egin aparteko ekarpena nire funtsera" aukeren bitartez, www.bbva.es edo m.bbva.es atarrietako nahiz BBVAren aplikazioko eremu pribatuan, edo BBVAren edozein kutzazain automatikotan, baldin eta adierazitako kanalen bitartez promozioarekin bat egiteko prozesua erabilgarri badago. Indarraldian egin beharko dira aparteko ekarpenak.

SEIGARRENA.- Zozketa

Promozioaren indarraldia amaitu ondoren, zozketa bat (1) egingo da pentsio planetara, gizarte aurreikuspeneko planetara eta inbertsio funtsetara aparteko ekarpenak egin dituzten parte hartzaileen artean (aurrerantzean, "zozketa").

Adierazitako zozketa horretan 6 irabazle eta 12 ordezeko aterako dira (bi ordezeko irabazle bakoitzeko). Dagokion irabazleak, edo hautatze ordenaren arabera hurrengo datorren ordezekoak, saria onartzen ez duenerako, lege oinarri hauetan parte hartzeko ezarritako betekizunak eta/edo baldintzak betetzen ez ditueneko, edo aurkitu ezin denerako izango dira ordezekoak.

Beraz, parte hartzaileen 6 fitxategi sortuko dira, honela: lehen fitxategian jasoko dira pentsio eta aurreikuspen planetara ekarpena lehen epealdian (19/10/01etik 19/10/31ra bitarte) egin duten parte hartzaileen ekarpenak; bigarren fitxategian jasoko dira pentsio eta aurreikuspen planetara ekarpena bigarren epealdian (19/11/01etik 19/11/30era bitarte) egin duten parte hartzaileen ekarpenak; hirugarren fitxategian jasoko dira pentsio eta aurreikuspen planetara ekarpena hirugarren epealdian (19/12/01etik 19/12/31ra bitarte) egin duten parte hartzaileen ekarpenak; laugarren fitxategian jasoko dira inbertsio funtsetara ekarpena lehen epealdian (19/10/01etik 19/10/31ra bitarte) egin duten parte hartzaileen ekarpenak; bosgarren fitxategian jasoko dira inbertsio funtsetara ekarpena bigarren epealdian (19/11/01etik 19/11/30era bitarte) egin duten parte hartzaileen ekarpenak; eta seigarren fitxategian jasoko dira inbertsio funtsetara ekarpena hirugarren epealdian (19/12/01etik 19/12/31ra bitarte) egin duten parte hartzaileen ekarpenak.

Parte hartzaile bakoitzak zozketa guztietan parte hartzeko eskubidea izango du, baina haietako bat soilik irabazi ahal izango du.

Irabazleren batek saria onartzen ez badu, legezko oinarri hauetan ezarritako parte hartzeko eskakizunak edo baldintzak betetzen ez baditu edo harekin harremanetan jartzeko aukerarik ez badago, irabazle izateari utziko dio, eta hurrengo ordezekoari emango zaio saria, dagokion ordenari jarraikiz.

Irabazleren batek eta haren bi ordezekoek saria onartzen ez badute, legezko oinarri hauetan ezarritako parte hartzeko eskakizunak edo baldintzak betetzen ez badituzte edo haiekin harremanetan jartzeko aukerarik ez badago, irabazle izateari utziko diote, eta eman gabe geratuko da saria.

Parte hartzaile bakoitza behin bakarrik suertatuko da irabazle.

Azken batean, sei (6) irabazle lortuko dira gehienez (aurrerantzean, "irabazlea/k").

Irabazleetako batek ez badu legezko oinarrietan finkatutako edozein betebeharrak betetzen, automatikoki deskalifikatuko da eta, emanda badago, saria itzultzera behartuta egongo da. BBVAk sariaren irabazleari jakinaraziko dio deskalifikatua izan dela legezko oinarriak ez betetzeagatik, eta jakinarazpen horretan adierazitako arrazoizko epean, emandako sariaren zenbatekoa zordunduko du, irabazleari dirua zer kontutan sartu zaion, kontu horretan bertan. Ildo horretan, irabazleak berariaz ematen dio BBVAri saria ordaindu den kontuan itzuli beharreko zenbatekoa zorduntzeko baimena.

Kasu horretan, legezko oinarrietan parte hartzeko ezarritako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituen hurrengo ordezekoari esleituko zaio saria.

Zozketa 2020/01/16an egingo da, notarioaren aurrean, dela BBVAren Madrilgo egoitzetako batean, dela horretarako izendatutako notarioaren bulego profesionalan.

BBVAren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta, zozketarik ezin bada egin aurreikusitako datan, bertan behera geratuko da eta hurrengo egun baliodunera pasatuko da, zozketa egitea eragozten duen arazoa konponduta dagoenean. Hasiera batean aurreikusita zegoen datan egin beharreko zozketan sartuko liratekeen parte hartzaileen zerrenda erabiliko da.

Zozketetako batean parte hartzailearik ez badago, BBVAk huts deklaratu du zozketa hori eta zozketari dagokion saria.

Notarioak notariotzaren plataforma telematikoan xede horretarako eskuragarri dauden aplikazioak erabiliz egingo du zozketa, edo ausazkotasuna bermatuko duen beste edozein prozedura erabiliz. Zozketa bakoitzean, fitxategi bat prestatuko da, eta notarioari emango zaio, formatu fisikoan edo digitalean. Bertan, legezko oinarri hauetan biltzen diren eskakizun edo baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaile guztiak

agertuko dira. Parte hartzaile bakoitzari bankuaren barne identifikazioko kode bat esleituko zaio (parte hartzaile bakoitzarentzat eskusiboa), baita txartel zenbaki bat ere, sekuentziala. Horrela, fitxategi bat prestatuko da pentsio planetarako eta inbertsio planetarako ekarpenen txartel guztiekin, ekarpenen epealdi bakoitzeko (19/10/01etik 19/10/31; 19/11/01etik 19/11/30era; 19/12/01etik 19/12/31ra), eta txartel horietako bakoitza parte hartzaile banari egokituko zaio. Fitxategi horiek erabiliko dira zozketarako.

Zozketetako bakoitzean, parte hartzaileen zerrenda oso bat izango da, paperean edo formatu digitalean. Zerrenda hori notarioaren esku geratuko da, eta zozketaren aktari erantsiko zaio. Hortaz, saritutako txartel zenbakiak ezagututakoan, notarioak saritutako parte hartzaileetako bakoitzari bankuak eman dion barne identifikazioko kodea ezagutu eta idatzi ahal izango du.

ZAZPIGARRENA.- Saria

Sari gisa, mila (1.000) euro gordin emango zaizkio irabazle bakoitzari (aurrerantzean, "saria").

Sei (6) sari esleituko dira guztira (aurrerantzean, "saria/k"), seigarren klausularen arabera lortutako sei irabazleentzat (6) bana.

Sarian ez da aldaketarik egingo eta ez da haren truke ordainik emango irabazleek eskatuz gero. Irabazle batek baino gehiagok sariari uko egiten badiote, ez zaio ordezeko saririk eskainiko.

ZORTZIGARRENA.- Iruzurra

BBVAk edo profesionalki promoziora lotuta dagoen edozein erakundek arazoren bat detektatzen badu edo susmatzen badu partaide batek galarazi egiten duela promozioaren garapen ohikoa, partaide horren parte hartzea bertan behera utziko da aldebakarrekotasunez. Xede horietarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak prestatu ditu, saria legez kanpo lortzeko parte hartzea aldatu nahi duen iruzurrezko, ohiz kanpoko edo doluzko jokaerarik bada hauteman dadin. Hortaz, BBVAk berretzat gordetzen du edozein partaide erregistrotik ezabatzeko eskubidea, erakutsi badu edo susmatzen bada deskribatutakoaren arabera arauz kanpoko jokaera bat duela.

BEDERATZIGARRENA.- Sariaren jakinarazpena eta emateko baldintzak. Sarirako eskubidea galtzen denerako prozedura

Irabazleei gehienez zozketa egin osteko hamabost (15) egun naturaleko epean jakinaraziko zaie irabazi dutela, irabazleek haien kontratuaren esparruan BBVAri emandako telefono zenbakia erabiliz deituta; telefono zenbakirik adierazi ez badute, mezu bat bidaliko zaie adierazi duten helbide elektronikora, eta harremanetarako datu horiek eduki ezean, bulegoko kudeatzailearen bitartez egingo da komunikazioa.

Hiru (3) saiakeraren ostean ez bada lortzen irabazlearekin harremanetan jartzea edo lehenengo aldiz harekin harremanetan jarri ondoren zazpi eguneko epean irabazleak ez badu jakinarazi irabazle izatea onartzen duela, seigarren klausulan ezarritako prozeduraren arabera ezarritako hautapen ordenari jarraikiz hurrena dagoen ordezkoari esleituko zaio saria, baldin eta legezko oinarri hauetan adierazitako eskakizunak betetzen baditu.

Irabazleak irabazi duela jakinarazteko bidali zaion mezu elektronikoan jasoko du BBVArengandik sariaren onartze eta jasotze agiria. Irabazleak zazpi (7) eguneko epea izango du, aipatutako dokumentua bidaltzen zaionetik zenbatzen hasita, BBVAri dokumentuaren kopia eskaneatua bidaltzeko, behar bezala sinatuta, eta, beharrezkoa bada, baita BBVAren pentsio plan individual edo gizarte aurreikuspeneko planaren edo BBVA inbertsio funtsaren indarraldia egiaztatzeko eskatutako datuak nahiz dokumentazioa ere, info@sorteosbbva.es helbide elektronikora. Dokumentazioa jaso ondoren, BBVAk bezeroaren kontu korrontean ordainduko du saria, 2020ko martxoaren baino lehen.

Irabazleak ez badu adierazitako epean bidaltzen onartze eta jasotze agiria kopia, ez baditu betetzen lege oinarri hauek edo ezin bada aurkitu, legezko oinarrietan agindutako baldintzak betetzen dituen ordezkoari esleituko zaio saria, seigarren klausulan ezarritako prozedurarekin bat hautatze ordenari jarraituz.



HAMARGARRENA.- Legezko oinarrien onarpena

Legezko oinarri hauek onartuta, horiekiko adostasuna adierazten da, eta ontzat ematen da BBVAren irizpidea horien interpretazioan egon daitekeen edozein gatazka ebazteko.

HAMAIKAGARRENA.- Erreklamazioa

Promozioren inguruko erreklamazioak egiteko epealdia indarraldiaren amaiera datan hasi eta lauogeita hamar (90) egun natural igaro ondoren amaituko da.

HAMAIKAGARRENA.- Datu pertsonalen tratamendua

Parte hartzaileari jakinarazten zaio zozketa honetan erregistratzean eta parte hartzean emandako datu pertsonalak, ordezko edo irabazle gisa emandakoak ere barne, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.ren titulartasuneko fitxategi batean tratatu eta gehituko direla (BBVAren helbidea San Nikolas plaza 4, 48005, Bilbo da); lehiaketa honetako fase guztiak kudeatzeko, eta baita dagozkien sariak emateko eta gainontzeko komunikazio, informazio eta lehiaketara lotutako promozio lanetarako, Legezko oinarrietan aurreikusitako baldintzetan.

Informazio hau BBVAk tratatu eta zainduko du agindu dakizkioken legezko segurtasun neurrien bitartez, horren segurtasuna bermatuko duten izaera tekniko eta antolaketako neurrien bidez, horren aldaketa, galera, edo baimendu gabeko tratamendu edo sarrera saihestuz, teknologiaren egoeraren, datuen izaeraren eta horiek izan ditzaketen arriskuen arabera. Zure datuak kontserbatu egingo ditugu lehiaketan parte-hartzearen kudeaketarako beharrezko epealdian.

BBVA ez dizkiegu hirugarrenei zure datuak komunikatuko, lege batek behartu edo horretarako onarpena jaso ezean.

Parte-hartzaileek doan erabili ahal izango dituzte datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkartzeko beren eskubideak, eta datuen tratamendua eta eramangarritasuna mugatzeko; horretarako, BBVAri idatzi behar diote, servicioatencioncliente@grupobbva.com helbidera. Eskubide horiek ezin izango dira atzeraeraginez erabili. Lehiaketaren kudeaketarako beharrezko datuen ezeztatzeak (barne hartuz sarien ematea) lehiaketaren baja automatikoa eragingo du.

Zure ustez BBVAk ez baditu araudiaren arabera tratatu zure datu pertsonalak, helbide honetan jar ziatezke harremanetan datuak babesteko ordezkariarekin: dpogrupobbva@bbva.com. Hala ere, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazioa jarri ahal izango duzu (www.agpd.es)

HAMAHIRUGARRENA.- Zerga-sistema.

Promozioko honetako mila (1.000) euroko sari bakoitzari hauek aplikatuko zaizkio: 35/2006 Legea, azaroaren 28koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen aldaketa partzialari buruzkoa; 26/2014 Legea, abenduaren 27koa, aurrekoa aldatzen duena; 439/2007 Errege Dekretua, erregelamendua eta haren ondorengo aldaketak onartzen dituena; 5/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategina onartzen duena (abenduaren 27ko 26/2014 Legearen bitartez aldatua); 1776/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudia onartzen duena; 13/2011 Legea, joko arautzeko; eta bat datozen eta hura garatzeko eman diren gainerako xedapenak. Hortaz, BBVAri egokituko zaio dirua kontuan sartzea edo atxikipena egitea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena (PFEZ) edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena.

Aipatutako araudiarekin adostasunean, partaideei jakinarazten zaie, salmentara edo ondasun edo zerbitzuetara lotutako joko, lehiaketa, zozketa edota ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik lortutako saria ondare-irabazitzat hartzen dela. Sariaren balorea hirurehun euro (300 €) baino handiagoa denez atxikipenari lotuta dago. Xede horiek lortzeko, indarrean dagoen legeriak finkatzen duen atxikipen tasa aplikatuko da; gaur egun, % 19koa da egoiliarrentzat eta Europar Batasunean edo Europako Esparru Ekonomikoan (Norvegia eta Islandia) establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrentzat, eta % 24koa, berriz, gainerako ez-egoiliarrentzat, salbu eta azken bi kasu horietan zergapetze bikoitza saihesteko Espainiak izenpetuta duen hitzarmen bat aplikatzen bada. Hala bada, hitzarmen horretan jasotakoari helduko zaio. BBVAk irabazlearen kontutik sartuko du atxikipena altxorrean.

Saria lortzeak irabazlearen zerga-sisteman izan ditzakeen eragin fiskalak, bere kontura kudeatu beharko ditu, eta horregatik BBVA edozein arduraz libratzen da. Horretarako, BBVAk irabazlearen esku jarriko du sariari buruzko datuak jasotzen dituen ziurtagiri bat.



Partaide irabazleak sariaren ematea baino lehen berretsi beharko ditu bere datu pertsonalak eta horretaz gain, bere identifikazio pertsonalerako dokumentuaren kopia eman beharko du (NANa, egoiliarren txartela, pasaporte, etab.). Bederatzigarren klausulan adierazitako atxikipena gauzatu ahal izan dadin, irabazleak onartze- eta hartze-agiria sinatu beharko du. Bestela, saria hartzeko eskubidea galduko luke.

Sariak emateko beharrezkoak diren irabazlearen datu pertsonal eta fiskalen betetzeak derrigorrezko izaera du; beraz, datu horietako edozein ez izateak lortutako saria izateko eskubidea galtzea eragingo du.

HAMALAU GARRENA.- Erantzukizuna

BBVA ez da arduratzen gerta daitezkeen galera, hondatze, lapurreta, atzeratze edo bestelako hirugarrenei edo interneti egotz dakizkieken bestelako egoerez, zeinak promozioan parte hartzean eragina izan dezaketen.

BBVAk berretzat gordetzen du edozein parte-hartze edo partaide bertan behera uzteko eskubidea, datuen edo promozioaren erabilera desegokiaren susmoak baditu.

Halaber, BBVA baztertu egiten du edozein izaera duen kalte-galerako edozein erantzukizun; izan ere, nahiz eta segurtasun neurriak hartu, partaideek zerbitzu eta edukien erabilera okerra egin dezakete, eta horien artean bereziki, nahiz eta ez modu eskusiboan, baztertu egiten dira erabiltzaile batek edozein komunikazio kasetan hirugarren baten pertsonalitate ordezenari lotutako edozein kalte-galerak.

HAMABOS GARRENA.- Legezko oinarrien kontsulta

Legezko oinarri hauek Luis Carlos Troncoso Carrera edo Gonzalo Sauca Polanco notarioen aurrean gordailutu dira (Boadilla del Monte, Madril), eta bbva.es webgunean eskura daitezke.

BBVAk ahalmena du legezko oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Partaideak onartu egiten du BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela promozioa, bere kontroletik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta, eta konprometitu egiten da partaideei egoera hori jakinaraztera lehenbailehen.

Legezko oinarri hauen edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, horren eraginik ez duten gainontzeko klausulak indarrean jarraituko dute.

HAMASEI GARRENA.- Parte hartzeko argibideak

Partaideek BBVAk igor ditzakeen argibideei kasu egin beharko diete.

HAMAZAZPI GARRENA.- Parte hartzeko mugak

Promozio horretan parte hartzetik kanpo geratzen dira, horren antolaketan parte hartu duten pertsonak, eta aktiboan ari diren langileak eta aurretik erretiratu direnak, bai BBVAkoak zein bere enpresa taldekoak.

Zozketan ere ezingo dute parte hartu, nahiz eta legezko oinarri hauetan adierazitako baldintzak bete, indarraldiak irauten duenetik saria ematen den arte, irabaziak suertatuz gero, BBVAren aurrean edozein epez kanpoko edo galdagarri kopuru bat zor duten partaideak. Aipatutako egoeran, partaideak erregularizatu egin beharko du egoera saria jaso aurretik. Saria emateko data iristen bada eta partaideak ez badu erregularizatu zorra, saridun egoera galduko du.

HAMAZORTZI GARRENA.- Legeria eta forua

Edozein eztabaida argitzeko, Espainiako legeria aplikatuko da Madrilgo epaitegi eta auzitegietan.